BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2774

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 6koa, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Zerbitzu zuzendariarena, 2013, 2014 eta 2015ean, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren menpeko zentro eta epaitegietako posta-zerbitzuaren kontratazioa gauzatzea Ogasun eta Finantzetako sailburuaren esku uzteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubidea onartzen duen ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluan eta Lehenengo Xedapen Gehigarrian, eta, halaber, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 172/2013 Dekretuaren 12.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio kudeaketa zentralizatuko eraikinetako erabilera orokorreko gai edo zerbitzuen kontratazioa, betiere zuzendaritza horri esleitu bazaizkio.

172/2013 Dekretuaren 12.a) artikuluaren arabera, halaber, aipatu zuzendaritzari esleitzen zaio modu zentralizatuan erosten diren ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko prozedurak garatzeko proposamena.

Gaur egun, uste da posta-zerbitzuak modu zentralizatuan kontratatzeak zerbitzuen kudeaketa hobetu eta gastu publikoa arrazionalizatzen laguntzen duela.

Lehen aipatu den 136/1996 Dekretuaren 19. artikuluaren arabera, modu zentralizatuan kudeatzen ez diren beste eraikin batzuk ere kudeatzeko eskumena ematen zaio Baliabide Orokorretako Zuzendaritzari. Eskumen horien hedapena honela gauzatuko da: hitzarmen bidez, administrazio-klausula zehatzen pleguetan ezarritako aurreikuspen espezifikoen arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako formula erabilita.

Aipatu alorrean posta-zerbitzuak era zentralizatuan kontratatzeko modurik aproposena, eskumenak eskuordetzean emateari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 13.1 artikuluan ezarritakoa da. Honela dio artikulu horrek:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzean eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Beraz, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak kontratazio gaietan esleitzen dituen eskumenen arabera, Zerbitzu Zuzendaritzako titularrari dagokio lan hori (188/2013 Dekretua. 2013ko apirilaren 18ko EHAA, 74. zk.).

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2013, 2014 eta 2015ean posta-zerbitzuak kontratatzeko eskumena Ogasun eta Finantzetako sailburuari ematea. Eskuordetzea luzatu ahalko da 2016 eta 2017ra arte.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren irailaren 14ko 3/2011 LEDan jasotako honako gai hauetara hedatuko da eskuordetzea, hain zuzen ere kontratuari aplikatzekoak direnetara:

– Kontratua prestatzea (II. liburua).

– Kontratua esleitzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioak kontratua aldatu, iraungi, laga eta azpikontratatzeko dituen eskumenak, IV. Liburuko I. tituluaren I. kapituluan oro har arautzen direnak, eta, hornidura-kontratuetarako, IV. Liburuko II. tituluaren IV. kapituluan berariaz aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

Bigarrena.– Kontratazio-organoari dagozkion gainerako eskumenak, eta, bereziki, emandako zerbitzuen gauzatzeari oniritzia emateko eta zerbitzuak ordaintzeko agindua emateko ahalmena eskuordetzen duen organoak izango ditu.

Hirugarrena.– Eskuordetze hau sinatzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 6a.

Zerbitzu zuzendaria,
JUAN M.ª ZUBELDIA ARRIETA.